

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte	06. Euskara 06. Euskara	335.106 Euskararen Sustapena 335.106 Promoción del Euskara

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez burutu du euskara sustatzeari begira atonduriko 335.106 programa, eta esan daiteke egitarau hori aurreikusita zegoen legez garatu dela 2022ko ekitaldian zehar.

Egin-eginean ere, egitarau honetan hainbat eginkizun betearazi dira euskararen sustapenaren eretzeari.

Eta hala, indarra eman zaio bertoko euskarari, hots, bizkaierari; eta horretarako, Bizkaiko hizkuntza ondarea gorde eta berreskuratzeko hainbat egitasmo burutzeko diru-laguntzak bideratu dira. Eta zer esanik ez, Atal honek berariaz aintzat hartu eta zaindu ditu Lurralde Historikoan Bizkaiko euskararen alde lan egiten ari diren izakundeen jardura desberdinak.

Euskara gizartearen eremu guztietan zabaltzeko ahaleginetan, bestalde, hainbat laguntza eman dira enpresa munduan euskararen erabilera areagotzeko. Dirulaguntzak eman zaizkie euren lantegietan euskararen erabilera bultzatzeko planak dituzten enpresei.

Euskara eta teknologia berriak uztartzen dituzten egitarau edo jarduerak garatzeko laguntzak ere eman dira.

Beste arlo bat udal erakunde eta mankomunitateei dagokie. Alde honetatik, beren-beregi landu dugu koordinazioari dagokion zeregina, eta Bizkaian euskararen inguruan egin diren ekintzak denboraren ikuspegitik arian-arian gertatu dira. Arlo honetan, bestalde, benetan eraginkorra dela erakutsi duen tresna bat baliatu dugu, 'Alkarbide' bilgunea, Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen topagunea; izan ere, 'Alkarbide'ren jardunbidea arras oparoa gertatu da Lurraldean hizkuntza-politikak gauzatzeko.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia a través de la Dirección General de Euskera ha culminado la aplicación del programa 335.106 de promoción del euskara durante el ejercicio 2022, desarrollándolo según lo previsto a lo largo de dicho ejercicio.

En este programa se han llevado a cabo diversas actuaciones vinculadas con la promoción del euskara.

Así, se ha potenciado el euskera propio del Territorio de Bizkaia, canalizando diversas ayudas para la realización de proyectos para la conservación y recuperación del patrimonio lingüístico de Bizkaia. Además, las diversas actuaciones de los organismos que trabajan en Bizkaia en pro de la potenciación del euskera vizcaíno han sido objeto de una atención especial por parte de esta Sección.

Las actuaciones desarrolladas en aras a extender el euskara a todos los ámbitos sociales, han tenido su reflejo en las ayudas concedidas a las empresas de Bizkaia que están llevando a cabo planes de uso del euskara en sus centros de trabajo.

Ayudas concedidas a sociedades o empresas para el desarrollo de programas o actividades que incorporan el euskara a las nuevas tecnologías.

Otro apartado es el correspondiente a las entidades municipales y mancomunidades. Concretamente se ha incidido en la coordinación, desde el punto de vista temporal, de todas las actividades que se realicen sobre el euskara en Bizkaia, para que se ordenen en el tiempo, y no se acumulen. Y para ello hemos contado con una herramienta de gran eficacia, el foro 'Alkarbide', espacio de encuentro de los servicios de euskara de los ayuntamientos y mancomunidades, el cual ha llevado a cabo una intensa actividad para el desarrollo de las políticas lingüísticas del Territorio.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. <i>Euskera, Cultura y Deporte</i>	06. Euskara 06. <i>Euskara</i>	335.106 Euskararen Sustapena 335.106 <i>Promoción del Euskara</i>

Aipatu beharrekoa da, halaber, Alkarbidek bateratu eta kudeatu dituen kanpaina berezi desberdinek izan duten arrakasta, gero eta bizkaitar gehiagorengana heltzea lortzen ari delarik.

Lurralde Historikoan euskaraz argitaratzen diren aldizkariak laguntza eman zaie. Era berean, euskararen arloan diharduten elkarteak ere zuzendaritza nagusi honen helburu izan dira, beraiek euskararen alde egiten duten lana goiburu hartzen baitugu.

Eskolaz kanpoko jardueretan, euskara bultzatzeko ahaleginak egin dira, eskolaz kanpoko jarduera horietan begirale eta eragile euskaldun gehiago izan dadin; egin-eginean ere, arlo hori lantzen ari diren hainbat proiektutarako laguntzak eman dira.

Ahalegin berezia egin da euskararen arloan diharduten gainerako erakunde ofizialekiko lankidetzara eta elkarlana areagotzeko. Hortaz, Euskararen Aholku Batzordean, HAKOBAn, Euskara Bizia Batzordean eta abarretan esku hartu dugu eta esparru horietatik abiarazitako ekimen eta proiektuak garatzen eta gauzatzen lagundu dugu. Bat aipatzearren, dagoeneko ezaguna den *Euskararen Txantxangorria* aipatuko dugu, bai eta BIKEE (Bizkaian ere Kirola Euskaraz) ekimena ere.

Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen arloan estrategikotzat jotzen diren egiturak sendotzen ere ahaleginu gara. Izan ere, Euskaltzaindiarekin, Labayru Ikastegiarekin, Irratibide SArekin edo Gerediaga elkartearekin eginiko hitzarmenak burutzeko laguntzez gain, Euskal Herriko Unibertsitateak ere izan du gure laguntza, bai eta Udako Euskal Unibertsitateak ere.

Debemos mencionar, además, las diversas campañas coordinadas a través de Alkarbide que han tenido una gran acogida por parte de la ciudadanía de Bizkaia.

Se han concedido ayudas a las publicaciones periódicas que se editan en euskara en el Territorio Histórico. Las asociaciones que trabajan en el ámbito del euskara también han sido objetivo de esta dirección general, en consideración el trabajo que realizan en pro del euskera.

Se ha incidido en el fomento del euskara en las actividades extraescolares, encaminadas fundamentalmente al incremento del uso del euskara por parte de los monitores. En este sentido, se han concedido ayudas para la materialización de proyectos que inciden en ese campo.

Se ha incidido, más si cabe, en la colaboración y el trabajo en común con el resto de las instituciones oficiales que actúan en el ámbito del euskara, participando activamente en los foros clave, tales como, el Consejo Asesor del Euskera, HAKOBA, Euskara Bizia Batzordea, etc., colaborando en la elaboración y realización de proyectos y actuaciones comunes. A este respecto y a modo de ejemplo significativo cabe mencionar la conocida campaña Euskararen Txantxangorria, así como la iniciativa BIKEE (Bizkaian Kirola ere Euskaraz).

Consolidación y fortalecimiento de las estructuras estratégicas del euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia; en este sentido, cabe mencionar los convenios de colaboración con Euskaltzaindia, el Instituto Etxepare de Labayru, Irratibide S.A. o Gerediaga Elkartea, así como el apoyo a la Universidad del País Vasco, y la ayuda concedida a la Universidad Vasca de Verano.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte	06. Euskara 06. Euskara	335.106 Euskararen Sustapena 335.106 Promoción del Euskara

Euskararen Egunak, halaber, merezi du aipamen berezia. Egin-eginean ere, Aldundiak hainbat ekitaldi antolatu zituen egun hori ospatzeko, eta nabarmentzekoa da Lauaxeta Sariak emateko Bilboko Elkarte Filarmonikoan eginiko ekitaldia. Hauei eman zaie saria: Aritz Gorrotxategi Mujika jaunari, «2022ko Lauaxeta Poesia Saria»; Itziar Ugarte Irizar andreari, 35 urtetik beherako olerkarienezako saria, eta Iratxe Fresneda Delgado andreari, «2022ko Ikus-entzunezkoen Lauaxeta Saria».

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak Azkue Fundazioari eutsi dio Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, beste erakunde publikoak eta pribatuak ere sartzea nahi dela. Azkue Fundazioaren funtsezko xedea hau da: euskararen erabilera sustatzea, herritarrei euskarari buruzko oinarritzko edukiak eskaintzea, eta modu interesgarri, atsegin eta zuzenean lantzea euskarak integratzeko duen balioa, hizkuntza horretako gertakizunak garrantzitsuenak, euskalkien aberastasuna, etab. Horretarako, punta-puntako teknologiak erabiliko dira beti.

La celebración del Euskararen Eguna merece una mención, ya que se llevaron a cabo diferentes actos organizados al efecto por la Diputación, entre los que tuvo especial relevancia el celebrado en la Sociedad Filarmónica de Bilbao para la concesión del «Premio Lauaxeta de Poesía 2022» concedido a don Aritz Gorrotxategi Mujika; el premio destinado a las personas autoras menores de 35 años, concedido a doña Itziar Ugarte Irizar, y el «Premio Lauaxeta de Audiovisuales 2022» a doña Iratxe Fresneda Delgado.

Por último, la Diputación Foral de Bizkaia, junto a Euskaltzaindia y la Universidad del País Vasco ha seguido sosteniendo la fundación Azkue Fundazioa, siendo la intención que otras instituciones públicas y privadas se incorporen a la misma. La fundación Azkue Fundazioa tiene por objeto fundamental fomentar el uso del euskera, ofrecer a la ciudadanía contenidos básicos sobre el euskera, así como trabajar de un modo interesante, divertido y directo el valor integrador del euskera, los acontecimientos más importantes de la historia de dicha lengua, la riqueza de sus dialectos, etc., todo ello utilizando tecnologías punta.